



TOLOSAKO  
UDALA

## GOBERNU BATZARRA

2018. 03.21

**Alkatea:** Tolosako Udaletxean, bi mila eta hemezortziko martxoaren hogeita batean, 14:30etan, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahaiburua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda aztertzeko.

**Olatz Peon Ormazabal**

**Zinegotziak:**

**Patxi Amantegi Zubiria**  
**Nerea Letamendia Beloso**  
**Iñigo Alonso Sarasibar**

1. Tolosako udalerrian etxez etxeko laguntza-zerbitzua kontratuaren adjudikazioa onartzea.

**Idazkaria:**

**Begoña Garmendia Vazquez**

**Kontuhartzailea:**

**Ainhoa Molinos Zubiaurre**

### 1. TOLOSAKO UDALERRIAN ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA-ZERBITZUA KONTRATUAREN ADJUDIKAZIOA ONARTZEA.

#### AURREKARIAK

I.- Aipaturiko espedientean, indarrean dagoen legedian ezarritako dokumentuak jasota daudela. Esleipen-espedientean; kontratua jardunbide ireki bidez bideratu dela egiaztatu dela, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 138.2 eta 157 eta hurrengo artikuluetan aurreikusi eta arautu bezala. Izapidetzea ohikoa izan dela eta esleipendunaren aukeraketa zenbait irizpideetan oinarritu dela, Legearen 150.1 artikuluan adierazitakoaren arabera.

II.- 2017ko irailaren 11an egindako Tokiko Gobernu Batzarraren bilkuran, besteak beste, "Tolosako Etxez-Etxeko Laguntza Zerbitzua" jardunbide ireki bidez esleitzeko kontratazio-espedientea hasiera ematea, Administrazio Baldintza Berezien Pleguak eta Preskripzio Teknikoen Orria eta kontratazio-jardunbideari hasiera ematea onartu zirela.



III.- Lizitazio iragarkia 2017ko irilaren 27an argitaratu zela Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta kontratugilearen profilean, 40 egun naturaleko epea emanaz proposamenak aurkezteko, Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean bidali eta hurrengo biharamunetik zenbatzen hasita.

IV.- Lizitazio epean espedientean jasota dauden eskaintzak, guztira bi aurkeztu zirela; CASER RESIDENCIAL S.A.U eta ILARKI ELKARGOIA enpresenak hain zuzen ere.

V.- 2017ko urriaren 30ean kontratazio mahaia bildu zela dokumentazio orokorra irekitzeko eta bi elkarteek lizitazioan aurrera egiteko baldintzak betetzen zituztela erabaki zuela.

VI.- Hiru kartazalak irekita, Gizarte Zerbitzuetako Arduradunak 2018ko otasilaren 15ean emandako txostenaren arabera, eskaintzen balorazioa Administrazio Baldintza Zehatzen Agiriaren 13. klausulan xedaturiko esleitze-irizpideen arabera eman ondoren, kontratua **CASER RESIDENCIAL S.A.U** enpresari esleitzeko proposamena egin zuen.

Gizarte Zerbitzuetako Arduradunak baloraturiko guztizko puntuazioa ondorengoia izan da:

---

#### **Guztira puntuak**

<b>Proposamena</b>	<b>B kartazala</b>	<b>C kartazala</b>	<b>DENERA</b>
<b>CASER RESIDENCIAL S.A.U.</b>	<b>51</b>	<b>36</b>	<b>87</b>
<b>Ilarki Elkargoa</b>	<b>0</b>	<b>41</b>	<b>41</b>

---

Beraz, aurreko atalak eta jasotako proposamena aztertu ondoren, kontratazio-unitateak esleipen prozesu honen irabazle, 87 punturekin, **CASER RESIDENCIAL S.A.U** izatea proposatzen du.

VII.- 2018ko otsailaren 26an emandako 381/2018 Alkatetza Dekretuaren bidez, abantailarik handiena duen eskaintza aurkeztu duen lizitatuari Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 151.2 atalak eta Administrazio Baldintza Berezien Agiriaren 16. klausulan ezarritako dokumentazioa aurkezteko errekerimendua luzatu zion.

VIII.- CASER RESIDENCIAL S.A.U. SAU enpresak 2018ko martxoaren 5ean, epe barruan, 83,382,08€-ko behin-betiko bermea eratu izanaren egiaztatzea eta horrekin batera errekeritutako gainontzeko agiriak aurkeztu dituela 2018ko martxoaren 12an.



TOLOSAKO  
UDALA

## LEGE-OINARRIAK

**ESKUMENA.-** Kontratu honen esleipena onartzeko eskumena Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrari dagokio, Alkate-Udalburuak 2015eko uztailaren 28ko Dekretuan emandako ahalmenez baliatuta (GAO 2015eko abuztuaren 6an 148 zkia. argitaratuta), Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen II. Xedapen Gehigarriaren 1. atalean eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.3 artikulua xedaturikoari jarraiki.

**ARAUBIDE JURIDIKOA.-** Dokumentazioa aztertu ondoren eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 151. artikuluan xedaturikoaren arabera, Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrari ondorengo ebaztea proposatzen zaio:

Aurreko guztia kontuan izanda eta Tolosako Udaleko teknikariak egin duen proposamenarekin bat etorritik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENA.-** *“Tolosako Etxez-Etxeko Laguntza Zerbitzua”*, CASER RESIDENCIAL S.A.U SAU enpresari esleitzea, ondoko prezioan:

- **Astelehenetik ostiralera** (jaiegunak izan ezik): **20,16€/orduko**, 19,39€/orduko printzipalari dagozkio eta 0,77€/orduko %4-ko BEZari.
- **Asteburu eta jaiegunetan** **25,52€/orduko**, 24,54€/orduko printzipalari dagozkio eta 0,98€/orduko %4-ko BEZari.
- **Urteko gastua: 887.973,65€**, 853.820,82€ printzipalari dagozkio eta 34.152,83€ %4-ko BEZari.
- 2018. urteari dagokionez, prezioa izango da zerbitzua emango duten hilabetei dagokiona, hau da, apiriletik abendura bitarteko parte proportzionala kalkulatu da.

**Kontratuaren iraupena 2 urtekoa** izatea, kontratu administratiboa sinatzen den egunetik zenbatzen hasita. Kontratuaren iraupena beste 2 urtez luzatu ahal izango da urtez-urte.

**BIGARRENA.-** Jendaurreko publizitateko gastuen ordainagiria aurkeztea, hain zuzen, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaraturiko iragarkiei dagozkienak. Esleipendunak hitzarmena sinatzerako garaian, iragarkien ordainketa egin duela egiaztatuko du, Tolosako Udaleko Kontuhartzaitza Sailean.



TOLOSAKO  
UDALA

**HIRUGARRENA.**- Erabaki hau CASER RESIDENCIAL S.A.U. enpresari eta Kontu-hartzaitzako Departamentuari jakinaraztea.

**LAUGARRENA.**- Esleipendunari errekeritzea, **esleipenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo hamabost (15) egun baliodun igaro ondoren, gehienez bost (5) eguneko epean** kontratu hau formalizatzeraz etorri dadin Tolosako Udalera.

**BOSGARRENA.**- Kontratuaren formalizazio iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea 48 eguneko epean eta kontratugilearen profilen.

**SEIGARRENA.**- Kontratu honen oinarrizko datuak, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 30. eta 333.3 artikuluan xedatzen duena betez, Sektore Publikoko Kontratuen Erregistroari jakinaraztea.

**Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 15:00etan.**

**ALKATEA**

**IDAZKARIA**